

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude kanalak.

Komunikazio, banaketa eta salmenta kanalak bereiz daitezke.

- **Zer egingo duzue zuen produktua edo zerbitzua bezeroengana helarazteko?**

Hasieran, gure produktua berria denez, herritik kartelak jarriko genituen jendeak gure produktuaren berri jakiteko eta baita hainbat sare-sozialetan propaganda jarri ere. Oso garrantzitsua iruditzen zaigu gure bezeroei erraztasuna eta gertutasuna eskaintzea, eta horregatik haiek eskatuz gero etxera eramango genieke, hori bai, pixka bat gehiago ordaindu beharko lukete.

Erraztasunaren ildotik jarraituz, webgune bat bideratuko genuke etxetik kanpo lan egiten dutenentzat oso interesgarria izan litekeelako edonon edozer eskatzeko aukera izatea.

